

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Borondatezko epean kobratzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2021

Udal honetako alkatearen aginduz, honako hau jakinarazten da:

2021eko otsailaren 1etik martxoaren 31ra arteko egun baliodunetan (biak barne) trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2021eko zergari dagozkion ordainagiriak prest egongo direla borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen Zergabilketako Arautegi Orokorren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Lagran, 2021eko urtarrilaren 19a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ